# la perfumería
de Mercadona

2015EKO UDA



# EGUZKITIK BABESTUA

*Azal beltzarana, hidratatua eta ondo babestua*

## BERRITU ZURE EDERTASUN-PLANA

***Udaldirako aparteko zainketak***


EDIZIO MUGATUA
TROPICAL GARDEN
deliplus COLOR
DUO KOLORETEA
EZPAINAK MARKATZEKO ARKATZA
EZPAINETAKO DISTIRA
EZPAINETAKO BARRA

# LABURPENA






**04** **Berritu zure edertasun-plana**

UDALDIRAKO APARTEKO ZAINKETAK

*Hondartza zapaltzeko unea ia iritsi denez, jarraibide berriak behar dira aurpegia eta gorputza zaintzeko eta eguzkiaren lehen izpiez gozatzeko. Prest zaude ura eta eguzkia azalean sentitzeko?*

**12** **Eguzkitik babestua**

*Egon adi eta babestu zure azala hasieratik. Eta ez hondartzan bakarrik, baita hirian ere. Azal beltzaran, hidratatu eta ondo babestuaren aldeko apustua egiten dugu. Onartzen duzu erronka?*

**16** **Tropical Garden**

*Gozatu aurkezten dizugun fruta-koloreen koktelarekin, eta sar zaitez testura eta tonalitate bikainez beteriko lorategi tropikal eder honetan.*

**20** **Teknikolor begirada**

*Nahastu kolore distiratsu eta sofistikatu hauek zure begiak nabarmentzeko eta looka aldatzeko. Ubela, urdina, turkesa, kobrea, berdea… ezagutu iraupen luzeko arkatza eta itzala (edizio mugatua) eta lortu begirada elektriko bat!*

**24** **4 Fresh Look**

*Messy txirikorda, efektu bustiko mototsa, aftersun mototsa eta korapilo-mototsa, makillaje xume eta beltzaran batez eta ileko apaingarriez lagunduta, chic ukitu bat emateko. Denboraldi honetarako 4 look proposatzen dizkizugu.*

**32** **Azazkalen boterea**

*Gel-efektuko akabera distiratsua duten kolore biziak. Ezagutu Deliplus Color esmalte-bilduma berria, Mercadonako lurrindegian soilik.*





Argitaratzailea: MERCADONA SA
Polígono Industrial Fuente del Jarro
C/ Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimaketa: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008



Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.





# *Berritu zure edertasun-plana*

## UDALDIRAKO APARTEKO ZAINKETAK

*Hondartza zapaltzeko unea ia iritsi denez, jarraibide berriak behar dira aurpegia eta gorputza zaintzeko eta eguzkiaren lehen izpiez gozatzeko.*

PREST ZAUDE URA ETA EGUZKIA AZALEAN SENTITZEKO?

**ALDATU TXIPA!**



# Adi,
## hidratazio koloreduna!

Mimatu aurpegia, eta eman iezazkiozu hidratazioa, eguzkiaren aurkako babesa, azal uniformea eta kolorea **BB Cream-ak** erabiliz (tonu ilun edo argian): zure eguneroko edertasun-erritualean, funtsezko bihurtuko dira. Gogoratu gutxienez astean behin aurpegiko esfoliatzailea erabiltzea komeni dela, zelula hilak kentzeko eta **Larruazala esfoliatzeko.**












Aurpegiko eta begi-inguruko krema hidratatzaile aloe veraduna



# ELIKATZEKO
## *aloe vera & oliba-olioa*

Urtaro guztietan da garrantzitsua azala egunero hidratatzea, baina udan are gehiago; izan ere, eguzkiarekin, kresalarekin edo kloroarekin kontaktuan dagoenez, gure dermisak aparteko laguntza behar du leun eta hidratatuta egoteko. **Aloe veradun gorputzerako olioak** azala leheneratu eta hidratatu egiten du. Aprobetxatu dutxatzeko unea masaje leun batez azal bustiaren gainean emateko. Oso azal lehorrentzat, **Oliba-oliodun gorputzerako krema elikagarria.**

Mota guztietako azaletarako, aloe veradun krema: azala hidratatu, baretu eta leheneratu egiten du.






## ZELULITISAREN AURKAKO TRIKIMAILUA

**Krema emateko masaje biribil bat egitea komeni da, hatz-koskoekin gune horretan indar eginez, koipe-noduluak hausteko.**










# *Zelulitisa* KONTROLPEAN

Badakizu nola aplikatzen diren zelulitisaren aurkako kremak? Azala garbitu eta esfoliatu ondoren, eman **Gorputzerako dutxa-gel esfoliatzailea** astean behin edo bitan. Zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta indar handiagoa du **Vanity Series zelulitisaren aurkako olio lehor murriztaileko espraiak.** Erabil ezazu egunero, batez ere, kirola egitera zoazenean. Freskatzeko, hanketako astuntasun-sentsazioa arintzeko eta toki jakinetako koipeari aurka egiteko, aukeratu **Efektu hotzeko zelulitisaren aurkako gela.** Kafeina, galorratz-olioa, Asiako zentella eta E bitamina dira **Deliplus zelulitisaren aurkako krema murriztaile eta trinkotzaileak** dituen osagai ahaltsuetako batzuk.




# *for* MEN










Uda iristean, gizonezkoek ere gehiago zaindu behar izaten dute. **Aurpegirako 9.60 gel esfoliatzaileak** aurpegiko azala birsortzen du, eta **9.60 krema hidratatzaile** babesleak elikatu eta babestu egiten du. **9.60 sabelaldea murrizteko gelak** sabelaldean eta gerri-bueltan metatutako koipeari aurre egiten dio; **Sport Water Acción 9.60** koloniak eta **4Square Impulse desodorante** berriak, berriz, freskotasuna eta udarako lurrin ezin hobea eskaintzen dituzte.







Gel-efektuko 670 korala azazkal-esmaltea

## REFRESH!

Uda honetan, murgildu zaitez **Dutxarako fantasiazko gel freskoaren** lurrin txundigarrian.





Color Baloons 672 berdea azazkal-esmaltea




# Eskuak&Oinak

## UDAKO PROTAGONISTAK

Probatu **Laranja-loredun eskuko xaboi** berria (edizio mugatua). Eta hartu kontuan oinetarako proposatzen dizugun udako errutina: esfolia itzazu astean pare bat aldiz, bereziki orpoetan, **Deliplus oinetako gogortasunen aurkako esfoliatzailearekin**; haren efektua areagotzeko, apar-harria erabil dezakezu. Eman masaje leun bat lotara joan aurretik **Oinetako lehortasunaren aurkako hidratatzailearekin.** Oparitu iezaiozu une atsegin bat zeure buruari eguna amaitzean, oin eta **Zangoetarako gel freskagarri indargarria emanez**: asko arinduko zaizkizu eta freskotasun-sentsazio atsegina sentituko duzu. 5 minutu besterik ez dira, eta hainbat orduz eskertuko duzu! Osagarri gisa, har itzazu **Zangoak arintzeko anpoilak.** Babes itzazu izerditik, **Oinetako izerdiaren aurkako desodorantea** erabiliz. Eta, azkenik, eraman ezazu beti poltsan **Oinetako urratuen aurkako barra.**





# EGUZKITIK *babestua*

*EGON ADI eta babestu zure azala hasieratik. Eta ez hondartzan bakarrik, baita hirian ere. Azal beltzaran, hidratatu eta ondo babestuaren aldeko apustua egiten dugu. ONARTZEN DUZU ERRONKA?*

# 24 ORDUKO BABESA



Ezagutu eguzkiaren aurka babesteko joera berriena: ukipen lehorreko eguzkitako krema berriak berehala xurgatzen dira, eta ez dute sentsazio koipetsurik uzten azalean. Maiteko dituzu! Proba ezazu gure **Ukipen Lehorreko FPS 50+ gorputzeko eguzki-esprai garden berria.** Aurpegia UV izpietatik babesteko ohitura dutenek, babesten ez dutenek baino 4 urte gazteagoak dirudite batez beste. **Aurpegirako Solcare lineak** babes handia eta babes oso handia eskaintzen ditu, larruazalaren fotozahartzeari aurre egiten laguntzeko. Beraz, badakizu, babestu aurpegia urte guztian eta, bereziki, udan. Mercadonako lurrindegian zure beharretara ondoen egokitzen den eguzki-babeslea aurkituko duzu: gune sentikorretarakoa, azkar xurgatzen dena, adinaren aurkakoa...

Eta **Xurgatze azkarreko FPS 50+ aurpegiko fluidoa,** edozein unetan emateko. **Solar** kapsulek, beta-karotenoa eta zinka dituztenez, azala eguzkitan jartzeko prestatzen dute.



**GOGORATU**

Autobrontzeadoreekin akabera perfektua lortzeko, aurretik azala esfoliatzea eta hidratatzea komeni da.




BERRIA
















## *Beltzaran* EGOTEAREN BOTEREA

Eguzkitik ihesi ibiltzen direnetakoa bazara, ez kezkatu, aurpegi beltzaran polita lor dezakezu **Zapitxo autobrontzeadoreak** erabiliz; gorputzerako, berriz, **Berehalako beltzaran-efektua duen gela** erabil dezakezu: azalari argitasuna ematen dio, eta bat-batean tonu natural bat lortuko duzu. Edo, bestela, **Beltzaran-efektuko gorputzeko hidratatzailearekin,** hidratatzeaz gain, kolore polita izango duzu. Pixkanaka urre-koloreko tonu natural edergarri bat lortuko duzu, azala hidratatzen eta leuntzen duzun bitartean.

# Txikienentzat

Haurren azala delikatuagoa denez, babes eta zainketa bereziak behar ditu. **Haurrentzako FPS 50+ aurpegiko eguzki-krema** berriak haien aurpegia eguzki-izpietatik babesten du ez bakarrik hondartzan, baita parkean edo kirola aire zabalean egiten dutenean ere. Gogoratu Mercadonako Lurrindegian eguzkitik babesteko produktuen ildo osoa aurki dezakezula espraian edo haurrentzako krema berezian.




# (aftersuna




Eguzkipean egon ondoren, hidratatu ondo azala eta eman iezazkiozu aktibo eztigarri eta suspertzaile batzuk. Hasieratik zaindu ezazu, dutxan bertan **Aftersun bainurako gela** erabiliz. Eta uretatik irten ondoren, aukeratu **Aloe veradun aftersun gelaren** testura freskagarria, edo **Oliba-oliodun aftersun hidratatzailearen** krema-testura; azken horrek, gainera, are sakonago elikatzen du azala.









## ARRISKURIK GABEKO ILEA

Zure ileak eguzkipean distira egitea nahi duzu? Zaindu ezazu gehiago urteko sasoi honetan, ile-zuntza birsortzeko. **Exotic xanpu** eta **Egokitzaile babeslea** gomendatzen dizugu, UV iragazkiduna, eguzkipean egongo den ile normalarentzat.





Lápiz y Sombra
larga duración
ARKATZA ETA ITZALA. IRAUPEN LUZEKOAK
deliplus COLOR
Begi-itzalak, 5 tonutan:
01 zk., Grisa · 02 zk., Urdina · 03 zk., Berdea
04 zk., Kobrea · 05 zk., Krema
Begi-arkatzak, 3 tonutan:
Turkesa · Urdin argia · Morea
Sombra
larga duración
deliplus

# Palmondoen
## ITZAL AZPIAN

*Look* hau lortzeko, erabili **11. itzal matea** betazal mugikorrean, **Iraupen luzeko arkatz ubela** begiaren marra egiteko, **Maxi Volumen betileetarako maskara marroia** eta, masailetan, **Tropical Garden 01 moka-gerezia duo koloretea.** Ezpainetan, **Distira anitzeko Tropical Garden 01 mugurdia** eta **Tropical Garden 13 bioleta ezpainetako barrak.**



# Tropical GARDEN

*Gozatu aurkezten dizugun **FRUTA-KOLOREEN KOKTELAREKIN**, eta sar zaitez testura eta tonalitate bikainez beteriko lorategi tropikal eder honetan.*

# Edertasun beroa

## BARETASUNA ZURE AURPEGIAN



Lortu *look* hau hauek erabiliz: **09 itzala** oinarri gisa eta **Iraupen luzeko 04 itzala** betazal mugikor guztian, ondo lausotuta; eta betileetan, **Volumen 4Dimensiones maskara.**
Masailetan **Tropical Garden 02 mango-abrikota duo koloretea,** eta ezpainetan **Tropical Garden arkatz laranja, Tropical Garden 03 korala soft barra**, eta, bolumena emateko, **Tropical Garden 11 perla distira.**



## Maisu-ukitua

Tropical Garden ezpainetako barren koloreak eta distirak erabiliz, kolore eta bizitasun kontrajarriko lookak lor ditzakezu. Koral-koloreko barra eta perla-koloreko distira erabiliz, makillaje arinagoa lortuko duzu; aldiz, mugurdi-koloreko ezpainetako barra eta distira morea erabiltzen badituzu, *look* exotikoagoa lortuko duzu, kolore-potentzia handikoa.

Nahastu beldurrik gabe antzeko eta kontrako tonalitateak dituzten ezpainetako barrak eta distirak; esaterako, mugurdi-koloreko barra eta koral-koloreko soft barra. Testura eta tonalitateen nahaste original bat lortuko duzu, joera-joeran dagoen efektu apartarekin.

## GOGORATU

Tropical Garden duo koloretearen bi tonuak bakoitza bere aldetik edo elkarrekin erabil daitezke; bi koloreak nahastuz, aparteko kolore-emaitza lortzen da. Eman ezazu beti kolorete-brotxarekin edo hauts-brotxarekin, akabera perfektua lortzeko.

# Palmondoen
## ITZAL AZPIAN




# Edertasun beroa
## BARETASUNA ZURE AURPEGIAN




**A.** Maxi Volumen betile-maskara marroia / **B.** Iraupen luzeko arkatz ubela / **C.** 11. itzal matea / **D.** Distira anitzeko Tropical Garden 01 mugurdia ezpainetako barra / **E.** Tropical Garden 01 moka-gerezia duo koloretea / **F.** Tropical Garden 13 bioleta distira / **G.** Volumen 4Dimensiones maskara / **H.** Iraupen luzeko 04 itzala / **I.** Tropical Garden 11 perla distira / **J.** 09. itzala / **K.** Tropical Garden 03 korala soft barra / **L.** Tropical Garden 02 mango-abrikota duo koloretea/ **M.** Tropical Garden arkatz laranja



## BI KOLOREKO
# Ezpainak

**Distira anitzeko Tropical Garden 01 mugurdia ezpainetako barra** kanpoko aldean, eta **Tropical Garden 03 korala soft barra** barruko aldean.

ZURE ESKUEK ASKO ESATEN DUTE ZUTAZ

GEL
EFEKTUA




# *IRAUPEN LUZEKO* GEL EFEKTUA



# TEKNIKOLOR *begirada*

*Nahastu kolore distiratsu eta sofistikatu hauek zure begiak nabarmentzeko eta looka aldatzeko. Ubela, urdina, turkesa, kobrea, berdea… ezagutu iraupen luzeko arkatza eta itzala (edizio mugatua) eta lortu begirada elektriko bat!*



## GOGORATU

Garrantzitsua da iraupen luzeko arkatzak eta itzalak ondo ixtea, lehortu ez daitezen. Egin indarra taparen gainean klik txiki bat entzuten duzun arte.

## *INTENTSITATE HANDIAGOA*

Marraztu begi osoa **Iraupen luzeko arkatz ubelarekin** eta, ondoren, eman **Maxi Volumen maskara marroia, 01 kolorete arrosa** eta **08 ezpainetako distira.**




# LADY, LADY!

Ezkerreko orrialdeko looka: **Iraupen luzeko 02 itzala** gaineko betazalean, **Iraupen luzeko 04 itzala** betazal mugikorraren gainean, **Iraupen luzeko arkatz urdin** argia begi-txokoan, eta **Iraupen luzeko arkatz ubela** beheko betazala markatzeko. **Xtrem betile-maskara, 01 kolorete arrosa, 13 ezpainetako barra krematsua, Tropical Garden 11 distira** eta **656 azazkal-esmalte distira-emailea.**





# Maisu-ukitua

Ezpainetako kolorea nabarmendu nahi duzu, eta distirak luzaroagoan irautea? Margotu itzazu **Tropical Garden arkatz laranjarekin,** ezpainetako barra bat izango balitz bezala, eta eman **Tropical Garden 11 distiraren** ukitutxo bat.

# TONU-FESTA

Eman **Iraupen luzeko 03** eta **05 itzalak** betazal mugikorraren gainean. Gero, eman ukitutxo bat betazal mugikorraren arkuan **Iraupen luzeko 04 itzalarekin**; ondoren, marraztu beheko betazala **Iraupen luzeko arkatz turkesarekin.** Azkenik, hauek ematea gomendatzen dizugu: **Xtrem maskara, 04 korala koloretea,** eta **Tropical Garden ezpainetako arkatz laranja, Tropical Garden 11 distirarekin** eta **654 azazkal-esmalte distira-emailearekin batera.**



## Iraupen luzeko itzalak

Aplika itzazu zuzenean betazalean eta, nahi baduzu, hatz-mamiekin edo itzaletarako pintzel batekin lausotu ditzakezu (prozesu hori itzala aplikatu eta berehala egin behar da, oso bizkor lehortzen eta finkatzen baita).



# URDINAREN *XARMA*

**Iraupen luzeko 01 itzala** betazal mugikorraren gainean lausotuta, **Iraupen luzeko 05 itzala** betazalaren erdigunean argitasuna emateko, **Iraupen luzeko arkatz urdin argia** beheko betazala marrazteko. **Volumen 4Dimensiones betile-maskara, Tropical Garden 02 Mango-Abrikota duo koloretea** eta **01 ezpainetako barra krematsua.**




n°01 n°05



# 4 Fresh look

*Messy txirikorda, efektu bustiko mototsa, aftersun mototsa eta korapilo-mototsa, makillaje xume eta beltzaran batez eta ileko apaingarriez lagunduta, chic ukitu bat emateko. Denboraldi honetarako 4 look proposatzen dizkizugu.*

# EFEKTU BUSTIKO MOTOTSA




Look hau lortzeko, ilea bustita duzula aplikatu Deliplus finkatze-produktuak; Mercadonako Lurrindegian aurkituko dituzu. Ile-xerloak sustraitik puntara arte banaka lantzen badituzu, busti-efektu horrek ile guztian ordu gehiagotan irautea lortuko duzu. Eta makillajea? Oso naturala eta beltzarana zure nezeserrean ezinbestekoak diren **Eguzki-hautsekin**, eta, betileetan, **Maskara gardena.**




# AFTERSUN *MOTOTSA*

Egun osoa hondartzan eguzkitan egon ondoren, zure ileak babesa eta hidratazioa eskatzen ditu. Eman ezazu ile guztian UV iragazkia eta lurrin ezin gozoagoa dituen **Exotic egokitzaile babeslea,** eta bildu ezazu motots txiki panpox batean; ileko apaingarri bat jar dezakezu, kolore pixka bat emateko.


















# Korapilo-MOTOTSA

Nola lor dezakezu? Hasteko, egin ezazu motots bat erdi-parean; lasaitu ezazu pixka bat goma eta ireki ezazu erditik; ondoren, pasatu ezazu mototsa gomaren barrutik eta erantsi udarako aproposa den apaingarri bat. Ilea distiratsu edukitzeko, erabili Deliplus maskara hidratatzaileak ilearen erdi-paretik puntetara emanez, batez ere udan. Gorritu masailak **Koral-koloreko 04 koloretea** erabiliz, eta eman kolorea ezpainei **16. barra krematsuarekin.**


BERRIA
Exotic
LINEA
SENTSAZIOAK
ZURE ILEAN
EDIZIO MUGATUA
ACONDICIONADOR
PROTECTOR
Exotic
CABELLOS
EXPUESTOS AL SOL
con
Filtro UV
CHAMPÚ
Exotic
CABELLO NORMAL
con
Filtro UV
Deliplus

*Silueta zaintzen laguntzen dizun elikadura-osagarria.*

DRENAPUR











# *Messy txirikorda*

Lortu look informal hau albo batean ile-xerlo batzuk txirikordatuz eta, ondoren, bildu ile guztia behe samarrean egindako motots batean, baina utzi orrazkera erdi solte edo deseginda bezala, gutxi landuta. Gogoratu udan ilea gehiago zigortzen dela; ez ahaztu ile lehor eta **Hondatuarentzako Deliplus xanpuarekin zaintzeaz.**



Modeloak hauek daramatza: **Color Balloons** bilduma berria, **Iraupen luzeko 05 krema itzala** eta **04 korala barra matea,** ezpainetako distira gardenaren ukitu batekin.

# COLOR *balloons*

*Melokotoia, korala, gerezia, fuksia edo berdea.*
*Uda honetan, egin apustu azazkaletarako TONU BIZIEN alde.*




### *Color Balloons ESMALTEAK*

**A** 679 gerezia
**B** 675 arrosa
**C** 673 melokotoia
**D** 678 gorria
**E** 677 korala
**F** 674 grisa
**G** 672 berdea
**H** 676 fuksia

# *Azazkalen* BOTEREA



***GEL-EFEKTUKO** akabera distiratsua duten kolore biziak. Ezagutu **DELIPLUS COLOR** esmalte-bilduma berria, Mercadonako lurrindegian soilik.*

**Korala.** Azazkaletan gel-efektuko 670 azazkal-esmaltea, ezpainetan 10. barra krematsua eta Tropical Garden 03 barra.



**Gorria.** Gel-efektuko 661 azazkal-esmaltea.

# GOGORATU

Gel-efektuko akabera lortzeko, eman bi kolore-geruza uniforme, eta utzi ondo lehortzen; amaitzeko, eman top coat-en geruza bat.



**Granatea.** Gel-efektuko 660 azazkal-esmaltea.




670 korala




661 gorria




660 granatea




659 malba



671 arrosa




662 top coat


DESODORANTEAK
Cherry Passion
by chica fashion
Cherry Passion
by chica fashion
desodorante spray
antimanchas
Deliplus
Cherry Passion
by chica fashion
no mancha
Deliplus
lurrin berria
EDIZIO MUGATUA
Deliplus


GLAMOURRERAKO BIDAIA, BETIRAKO UDA
GRAND SUITE


GRAND SUITE
SANTORINI
EAU DE TOILETTE
GRAND SUITE
CAP FERRAT
EAU DE TOILETTE
GRAND SUITE
CAPRI
EAU DE TOILETTE